



Euskal Herrian, 2021eko abenduan

## EUSKO JAURLARITZA

### Lan-enplegu saila Idoia Mendia sailburuari zuzendua

Ia bi urte egingo ditugu COVID-19ak eragin digun pandemiarekin. Jakin badakigu askotariko egoera konplexuak eragin dituela, osasungintzari, egoera sozioekonomikoari, enpleguari zein zaintza esparruei atxikiak esaterako.

Oraingo honetan, zuei zuzentzen gara, hain zuzen, azken esparru honetan ematen ari diren egoeren aurrean neurriak har ditzazuela eskatuz. Hau da, ZAINZA erdigunean jarri eta berau bermatua izan dadin neurriak hartu behar dituzue, ezinbestean eta urgentziaz. Eta bai, LAB sindikatuaren aburuz, zuei dagokizue agintari zareten aldetik erabaki eta neurriok hartzea, eta zinez uste dugu ez dela beste alde batera begiratzeko unea.

Lehenik eta behin, gogorarazi nahi dugu LAB sindikatuak 2020ko udan, hortaz, pandemiaren lehen fasean, proposatu zuela zaintza arazoak zituztenentzat BAIMEN BEREZIAK sortzea. Eskaera hori Hego Euskal Herriko patronalei zein Gobernuari zuzendu genien, idatziz. Urte eta erdi beranduago, ordea, orduan ginen puntu Berean gaude, tamalez. Kezka handiz heltzen diogu gai honi eta baita sindikatu bezala dagokigun arduratik ere. Orain urte eta erdi horrela egin genuen, eta oraingoan ere horrela dihardugu.

Eskola-jarduera berreskuratu da, baina ezin esan dezakegu "egoera normala" bizi dugunik. Jakin badakigu COVID-19 birusak gure gazte eta haurrak gogor jo dituela azken hilabeteetan. Horrek, ondorio garbia izan du: haur eta gazte asko eta asko gutxienez 10 egunez etxeratuak izan dira (ehunka izan dira azken hilabete gutxian itxi diren gelak eta milaka etxean egoteko beharrean gertatu diren gazte eta haurrak). Nor egin da baina, gehienetan, bakarrik utzi ezin diren haur horien kargu?

Galdera horrek ez du erantzunik izan. Haur eta gazteen etxeratzea erabakitzen duten administrazioak berak ez du erantzunik eman pertsona horien zaintza bermatzeko. Auzi edo arazo erabat indibidual bilakatu da, hau da, zure haurren bat konfinatu badute, norberak daki zer egiten duen, zein aukera dituen. Eta aukera horiek Euskal Herriko herritar gehienontzat oso mugatuak dira: inguruko zaintza-sareetako kideren batekin utzi (maiz aitona-amonak), horiek kutsatzeko arriskuarekin; edota gurasoek hartu zaintza gure gain. Bigarren kasu horretan, aldiz, ez dugu berme-juridikorik; izan ere, egun aplikagarri dugun markoak ez du aurreikusten zaintzarako baimenik.

**Ezohiko egoerek ezohiko neurriak eskatzen dituzte, adin txikikoen zaintzarako, baina baita menpekotasun egoeran diren gainerako pertsonen zaintzarako ere. Hortaz, ezinbestean eta urgentziaz neurri horiek ahalbidetuko dituen markoak sortu behar dira. Hain zuzen, horretan gobernutik baduzue aipatu markoak bultzatzeko eginbeharra, ondoren, COVID-19ak eragindako ZAINZA BAIMENEI bide emango diena.**

Finean, zaintza beharrak dituzten pertsonen konfinamendua tarteko (kutsatuak izan direlako zein kontaktu izan diren kasuetarako) izan haur, gazte zein menpekotasuak dituzten pertsonak, horien ardura hartuko duten pertsonentzat zaintzarako baimenak eratzea exijitzen dugu, sektore publiko zein pribaturako. Horreta-

**rako beharrezkoak diren erabaki eta neurriak hartzea eskatzen dugu: hori ahalbidetuko duen mahaia eratzea gobernuari dagokion lidergoarekin.**

Horrekin batera, eskatzen dugu baimen horiek erantzunkidetasun neurriekin batera aratuak izan daitezela; zeren, hori horrela izango ez bada emakumeek hartuko dute zaintza ardura bere gain. Batu behar dugu ere, telelana edo lan ez presentziala ezin direla kontziliazio neurri gisa ulertu (horretarako joera garbia izan den arren azken urteotan); izan ere, horrek enpleguko lanak eta zaintza lanak aldi berean gauzatzea dakar eta ez dira bateragarriak, biak lanak baitira eta dagokien aitortza, denbora zein dedikazioa eskatzen dute.

Ondorioz, idazki honekin, beste behin eskatzen dizuegu egun bizi dugun egoera aintzat hartu, herritarron arazoak erdigunean jarri eta dagokizuen arduraz jokatzeko. Kasu honetan, zaintza baimenak sortzeko beharrezkoak diren baliabideak errazteko eskatzen dugu zehazki.

**Garbiñe Aranburu**  
**LABeko Idazkari Nagusia**

